

AZKAINEN Bizkartzun

Distantzia 14 km	Desnibela 300 m	Iraupena 2h00	Tipologia Itzulia	Zedarriak Hiruki horiak - Mendiko bizikleta
----------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	---

Donibane Lohizunetik (A63 autobideko 3. jalgebidea), D918 segitu Azkaine eta Senpereko norabidean. Azkaineko hiri-barrera heldu eta ibilgailua eliza gibelean utzi (P1 aparkalekua) edo hurbil seinalatuak diren beste aparkalekuetan.

GPS datuak: **UTM : 611911 - 4800008 Lat/Long : 43.34458/-1.61926**

Azkainetik abiatuz, Bizkartzun mendi inguruko itzuli honek ateraldi laster eta jostagarri baten bila dabilzan mendiko bizikletariak loriatuko ditu. Igoaldian, Arraioko ibarretik eta bere bide harritsuak iragaten da, eta jaitsieran, Uzkaingo ibar gordetik, bizikleta bakarreko bide kaotiko eta jostagarri batetik bukatuz. Bi kasuetan, harri mokor gune batzuen zeharkatze tekniko batzuei erne egon, oinarritzakoak diren oreka eta motrizitatea eskatuko dizkizutelakoan. Hortxe dugu gidari trebatuak loriatzeko eta ikasten ari diren arituak asaldaraztekoa! Bien artean, indar xume bat eginik, batez ere pedalei eragiteko laguntza baldin baduzu, trantsizio panoramiko eta goxoa izaten da Zuhalmendi gainaldeetan. Zerumuga itzulua oso-oso da, Donibane Lohizuneko badiatik Mondarraingo gainetara, zure hurrengo ihesaldien lekuak begitatzeko aukera.



1. ZATIA > Azkaine eta Arraioko ibarra

UTM: 611911 - 4800008

Elizako aparkalekuaren behean (P1), hilerriko karrika segitu ezker, eta eskuineko lehen karrikan itzuli (pilota plaza eta Santa-Maria eskola artean). Arraioa karrika igo bururaino. Gainean (Arraioa etxaldea), bide sakon bat hartu. Kanadar xeila baten ondotik, Y itxurako bidegurutze batera heltzen da, ubide ttipi batetik hurbil: ubidea ezker utzi parean den bidea segitzeko, gaztainondoan azpitik. Bidea Arraioko ibar sakonean igotzen da (beti ere erreka zure ezkerrean dela). Zati tekniko harritsu batzuk igoaldian.

2. ZATIA > Sarako oihanerako igoaldia


UTM: 613323 - 4799290

Bidegurutze baten heinean, parean den bidean ez segitzea-ri kasu egin, eta eskuinera igo (bizikletaz nekez ibiltzeko bidea). Bizikleta 3 minutuz bultzatu eta berriro pedalei eragin ibar-zulo bat iragatean eta hurrengo bide lauan. Errepide batera heldu eta, eskuinaldera igo. Nausien lepo ttipian (aparkalekua), oihanean igotzen den ezkerreko bidea segitu (zuhaitza 40 zkl. markatua). Igoaldi erregularraren ondotik, lau bideko elkargunera iritsi: ezker segitu, jaitsiera ez-tian. Bigarren ibar-zulo oihantsu batetik iragan eta bidegurutzera heldu (laugune eta Legureko etxola); eskuinera joan bi estaietako patar zuta erdiesteko eta ezker-raldeko bide onean egon, Zuhalmendi gailurraren azpian.

3. ZATIA > Zuhalmendi lepotik Mendiondora

UTM: 614524 - 4798931

Euskal zerri-haztegiaren gainean, Zuhalmendi lepoa iragan eskuin, eta beste isurialdean jaisten den bide harriztatua hartu. Bihurgune batzuen ondotik, Sarako ibarrerako ikuspegi ederra aurkitzen dugu. Oinezko bidezkei kasurik ez egin eta bidea luzatzen duen errepidean jaitsi. Abiadura moteldu hurrengo bidegurutzea ez huts egiteko (harri zutez inguratutako etxea).



4. ZATIA > Mendi gaineko bidean

UTM: 615358 - 4798551

Lehen bidegurutzan (etxea eskuin), igotzen den bide berri batean ezker hartu. Gero, zuzen ibili bide on batean, pentzeen artetik, ikuspegi zabalekin. Mundrunezko ezkerreko bihurgunean (7,6 km), eskuinera doan bihurgune bateko bidea hartu. Hurrengo Y itxurako bidegurutzan, ezkerreko adarra hautatu, Senpereko gainaldeetan jaitsiera laster eta ibilgarri baterako.

5. ZATIA > Uzkaingo ibarra

UTM: 615048 - 4800175

Lepoaren heinean den T itxurako bidegurutzan, ezkerre-joan Uzkaingo ibarrean laster jaisteko. Behean (haritz ederrak), uhaizta ibetik iragan eta parean den bidean segitu. Bigarren ibi bat iragan ibarraren eskuin aldean ibiltzeko, bide nagusian, argigune eta zuhaitzien artetik. Belar-biltegiaren ondotik (Elhorga), bide hareatsu eta arrokatsua bidegurutze batera jaisten da (haritz bakarti baten azpian): beti zuzen segitu 100 m-tan, bide zurian.

6. ZATIA > Uzkaingo jalgebide tekniko eta Azkainera itzultzea

UTM: 613408 - 4800768

Erreka zeharkatzeko kinkan zarelarik bide nagusia utzi, parean den bidexka urratua segitzeko, 50 m-tara errekarain nahasten dena. Ondotik, errekarain ezkerretik ibili (zati arrokatsu zailak). Tekniko, azkenera, bidexka berriz eskuin aldera pasatzen da (lauza batzuk). Oihanean sartzerakoan, erreka azken aldi batez zeharkatu, Aztarritz auzoko lehen etxeetara ezker igotzeko (atexka). Zati lauzatuaren ondotik, parean den lurrezko bidea segitu. Errepidera heldu, ezkerre segitu 100 m-tan, eta berriz ezker hartu Karrika Zaharrean. Jaitsi eta gero, ezkerre joan Bordatxoena karrikan, eta eskuin/ezker itzulinguru baten ondotik, Arraioa etxaldea berriz topatu: eskuineko karrika Azkaineraino jaisten da.

IBILBIDEEN TOPOGIDA

INTERESGUNEAK

❖ Eukaliptoia (3,1 km)

Haritz eta gaztainondo ugari aurkitzen badira Euskal Herriko oihanetan, Sarako herriko oihanaren eremu honetan sartuz, eukaliptoak badirela ohar gaitzke, maiz Australiatik datozen zuhaitzak, haien hazte lasterrarengatik I andatuak, askotan pinuen osagai gisa, paper oreka ekoizteko. UTM: 613375 - 4798465

❖ Xareta eskualderako ikuspegia (6,4 km)

Zuhalmendiko beste aldeak Sara eta Ainhoako ibarrerako ikuspegi ederra gordetzen du, Atxuria tontorraren azpian. Duen geografierengatik, Zugarramurdi auzoko herriarekin batasun bat sortzen duela dirudi, nahiz eta Frantzia eta Espainia arteko mugak bi administrazio eremutan bereizten duen. UTM: 615066 - 4798525

❖ Zuhaitz lepatuak edo kapetatuak (9,3 km)

Uzkaingo leku desberdinetan, itxura misterioitsuak dituzten zuhaitzak ikus ditzakegu: hantura bitxi batzuk enbor loden baten gainean, eta adar lerden anitz. Tokiko jendetza belaualdiek egindako mozte errepikatuen eta egur zentzeen ondorioz dute itxura hori. UTM: 614548 - 4800187

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

- Mendiondo, jaisterako bidegurutzea ez huts egin
UTM: 615358 - 4798551

- Uzkaingo ibarra, zati arrokatsu eta zail batzuk 700 m-tan
UTM: 613312 - 4800754

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

- Azkaine, saltegi eta zerbitzu guziak
UTM: 611755 - 4800085

- Azkaine, Xurio pilota plazatik hurbil, ur gunea, komunak
UTM: 611882 - 4800135

3. ZATIA



Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatueta.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilbideko ohitura duten ibiltariarentzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolariarentzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da.

Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziartzaren duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarritueta.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP® PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└┘	└┘	└┘	◀
Itzul eskuin	┘└	┘└	┘└	▶
Norabide okerra	✕	✕	✕	✕

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrek gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gov.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- EZPELETA, karrika nagusia
+33(0)5 59 93 95 02

- SENPERE, pilota plaza karrika
+33(0)5 59 54 11 69

- AINHOA, karrika nagusia
+33(0)5 59 29 93 99

- SARA, Herriko Etxea
+33(0)5 59 54 20 14

- AZKAIN, Olhetako bidea
+33(0)5 59 54 00 84

- URRUNA, René Soubelet plaza
+33(0)5 59 54 60 80

Kanboko Turismo Bulegoa

Avenue de la mairie
+33(0)5 59 29 70 25

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.